Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Anita Tolosa Goikoetxea

Urnieta, Gipuzkoa (1941)



Aurkibidea

Biografia



Azkaraten (Araitz) jaio zen eta bertan bizitu ezkondu zen arte, 13 senideko familia batean. Gazteenetakoa zen bera eta ongi gogoan du nola egiten zuten ogia etxean. 22 urte ingururekin joan zen Urnietara bizitzera. Baserriko lanetan gogor aritu da bizitza osoan zehar.

Zintak

URN-007

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Data**: 2009-12-17
- **Iraupena**: 59 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin - Alkorta Agirrezabala, Jon

Pasarteak

1. Eskolan erdaraz egin beharragatik, asko sufritutakoa

- **Erref**: URN-007/003
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:02:34. **Bukatu**: 00:03:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskolan asko sufritu zuen, berak ez baitzekien erdaraz, eta maistrak euskaraz ez. Eskolan, askok ez zuten maistrak esandakoa ulertzen; negarrez hasi, eta batzuetan etxera bidaltzen zituzten.

Transkripzioa
-1941. Ordun erderaz hitz eitten giñun ta eskolaa jun eta nik asko sufrittu nun eskolan. Nik euskeraz nekin dana eta maestrak euskeraz ez zekin. Eta hor kontraste hoi ikeragarriya izandu zan. Nik asko sufrittu nun.
-Nungua zen maistra?
-Ez dakit nungua zan. Kanpotik etorriya eta hango mutil batekin ezkondu zan. Hangoakin ezkondu zan, baiño kanpotik etorriya zan eta... Ona zan, nik ez det esaten txarra zanik. Ona zan, baiño ez giñen [ezkiñen] ulertzen. Harrek esaten zuna nik ez nion entenditzen, ta gaizki. Ta nik sufrittu eitten nun asko ta nik bezela beste askok'e bai. Eta askotan nearrez, nearrez ta nearrez, ta igual etxea bialtzen zian. Bai. Ta ez giñan entenditzen, ta hola gaizki pasatzen giñun.

2. Batzuk hostoak kimatzen, eta besteak gaztainak erretzen

- **Erref**: URN-007/005
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:04:53. **Bukatu**: 00:06:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
<p>Gauean, aitak hostoa ekartzen zuen etxera; eta, orduan, hostoak

kimatzen aritzen ziren gehienak; senide gazteenak gaztainak erretzen aritzen ziren. Orduko pasadizoak kontatzen ditu. Gaztainak biltzera joaten ziren lehen; ondo kontserbatzen ziren gaztainak, nola gordetzen zituzten aipatzen du.

Transkripzioa
- Ta geo gabetan, hoi zea asko dakat goguan, gabian gue aitta zana beti hostoa eo itten zun. Lizar hostoa o haritz hostoa o. Beti astuakin jun ta hostoak ekartzen zun etxea. Ta gabean hostoak kimatzen. Hostoak kimatzen eoten giñan, batzuk eoten zian ta gu umiak artean eta gu gaztaiñak erretzen. Bajuko sua izaten zan, su bajua eta su bajua ta gaztaiñak hasten zian “pum” eta gu lo. Suan ondoan jarrita lo hartzen ta gaztaiñak hasten zian “pum” eta aittak-o: "Ea gaztain hoik!". Haik handik sumatzen zuen ta gu lo. Ni lo. Eta “ra”, ordun buelta eman eta berriz'e ta berriz'e gaztaiñak “pum” ta “pum” ta: "Ea gaztain hoik!" eta. Bai, hola askotan, hola askotan. Ta geo gaztain biltzen ta gaztaiñak ordun. Oain ez dia kontserbatzen. Ordun kontserbatzen zian ba!
- Ta nola?
- Negu guztin, negu guztin gaztaiña izaten giñun guk gutzako. Guk eunero ez giñun jaten, baiño jaten giñuneako eta txerrintzako. Eta itten giñun ba basoa jun ta gaztaiñak bildu eta itten giñun etxea eaman, gurdin eamaten zan, gurdi kajan eaman eta itten giñun pillak etxean onduan, lurrean, kanpoan. Pillak in eta iñastorra, garoa esaten zan han. Garoakin tapatu, geo beste lurrakin eo berriz'e estali eta han earki eoten zan gaztaiña, bere morkotxakin.
- Oain holako lanik ez da?
- Oain holako lanik ez da hartzen. Baiño ordun bai urte guztin. Urte guztin ez, baiño negu guztin gaztaiña eukitzen giñun.
- Nahikua?
- Bai, bai, bai, bai.

3. Kotxerik ez zeneko garraiobideak

- **Erref**: URN-007/009
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:09:21. **Bukatu**: 00:10:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak

Laburpena:
Elur asko egiten zuen lehen. Aitak astoa erosi zuenean Zumarragan, etxera goizeko 03:00etan iritsi zen, oinez. Lehen, kotxerik ez zenean, nola moldatzen ziren aipatzen du: oinez, esnezalearen gurdian, astoan... Astoarekin hainbat bidaia egin behar izaten zituzten; orduko komeriak.

Transkripzioa
- Ta elurra asko itten zun?
- Elurra asko itten zun ordun, asko elurra. Eta gue aitta zanak astoa eosi Zumarragan ta etxea oiñez etorri omen zan, goizeko hiruretan aillatu omen zan etxea. Astoakin, Zumarragan astoa eosita. Ta holako gauzak asko, asko.
- Hoik ibillerak.
- Bai, ibillera txarrak. Ordun txarra denak. Geo ez zan izaten, ez kotxeik ta ezer ez zen izaten. Zerbaite behar baldin bazan, Atalloa oiñez. Oiñez joan

ta pues enkargu bat in ta oiñez etxea. Letxeroa izaten zan ta karga pixkat baldin bazan-o, letxeroan, letxeroakin batean gora eman jun Azkaratea. Ta astoakin, astoakin'e zenbat triste, biaje triste asko. Astoakin gariya kargatu etxian ta Atalloa eamaten giñun errota.
- Atalloa?
- Bai.
- Zenbat distantzi zeon Atallo?
- Hiru kilometro pasiak, hiru kilometro t'erdi o holaxen. Ta Atalloa eaman ta han eoskor earra zan errotaiya ta Jesus! Astoak deskargatzeko ta purrustaka. Gaixtoa zan ta […] utzi zun behintzat eta geo ekartzekoan berdin eta deskuidatzen bazan, lasai xamar baldin bazun, jo ta astuak buelta eman ta tripa azpin igual zakua-ta. Ze gauz, ze trixtia.

4. Altzora ardiekin joan, eta soinekoa puskatu

- **Erref**: URN-007/011
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:11:16. **Bukatu**: 00:14:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Ardi asko izaten zituzten, eta Altzora joaten ziren haiekin. Han, baserri bat hartzen zuten errentan, eta zer lan egiten zituzten azaltzen du. Behin, lanean zebiltzala, soinekoa puskatu zitzaion Anitari, eta orduan pasatakoak kontatzen ditu.

Transkripzioa
- Ta geo beste bat izaten zan, ardik izaten giñun guk.
- Ardik?
- Bai. Ardi asko izaten zan. Berrehun ta gehio izaten giñun ardik. Eta juten giñen Altzoa ardikin, Gipuzkoara negun ta udaran mendia. Ta Altzon izaten giñun baserri bat hartua, errentan, ta han itten giñun, negun eoten giñan ardikin ta hola. Ardik ta behien bat igual ta bihorra ta holako gauzak. Udaran itten giñun belarra eta gu gaztiak, gu hamalau-hamabost urte ta holaxe. Ta Azkaratetik maiña bat aldiz oiñez Altzoa. Bi orduko bidean, bi orduko bidean ta harea jun ta belarretan han aittu. Geo Atalloarrean beste batzutan. Atalloa jeitsi oiñez ta Atalloarrea jun, Txaraman jeitsi ta Txaramatik oiñez hara ordu erdin bat o hogei minutu o hogeita bost holakon bat. Ta eun batian ze in nun nik? Neska koskorra nitzan ta autobusetik Atalloaurretik jeixtekuan soiñekua engantxatu zitzaten ta soiñekua puskatu atzian. Soiñekua puskatu zitzaten ta nik bi anaia nazkan han Altzon. Bat menditik etorri zan belarra itteko eta nik ez esan ta anaiak atsaldean Atalloarrea bialdu zien, bialdu ziten etxea etortzeko eta ni ez jun nahi soiñeko harrekin, soiñeko puskatuta. Ze gaizki pasau nun nik ordun! Eta han abittu handik eta oiñez etorri nitzan etxea ta illunduko zun bildurrakin bide guztin korrika. Ta haik Atalloaurrea jun nitzala uste zuen ta ni oiñez etxea. Pentsa zazu, mendiz handik mendiz bi orduko bidean eta argi-argi aillatu nitzan etxea. Auskalo zenbat denboan etorri nitzan.
- Ai ama! Korrika batian.
- Korrika batian ta ez zekiyen nere anaiek zeatik etorri nitzan. Amak bai, amai esan beharko niyon, klaro, soiñekua hausi nula, amak bai. Ta hue

behiek jeiztea zijoan ni etorri nitzenian. Ordun etorriye mendia, larrean ibiltzen zian mendin eta behiek jeizten hola ta nola ta ta hola ta hola oiñez etorri nitzala, soiñekoa hautsi nula-eta. Ta anaiek ez zekien ezerre. Holako gauza asko.
- Ta anaiek, anaiei zeatikan ez zeniyeten esan soiñekoa hautsi zenula?
- Pues, ez niyen esan behintzat. Ez dakit zeatik ez niyen esan, baiño ez niyela esan nahi. Ez nitzan atrebituko esatea eta haik esango ziten juteko harrengatik, eo ez dakit zeatik eta oiñez etorri nitzan korrika bildurrakin illundu ingo zitzatela.

5. Altzora astoarekin zihoala...

- **Erref**: URN-007/012
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:14:12. **Bukatu**: 00:15:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Behin, Altzora eraman behar zuten txerria. Anitak astoarekin eraman nahi; eta, hala, mendian zihoala izandako bizipenak kontatzen ditu.

Transkripzioa
-Ta beste batean holaxe, Altzoa eaman behar zan txerriya. Ta txerriya ta astuakin eamango nula ta. Abittu gea. Zaate (Zarate) ez dakit jzuk akingo dezun, Zaate zan Gipuzkoa ta Naparruan mugan zeon etxe bat, han guardazibillak egoten zien, baiño ordun igual ez zan eongo. ez dakit bazeon ez zeon. Etxe bat zan. Eta haraiño amak laundu zian. Ta txerri hoi ez jabetzen zeangana astuangana. Han halako batian ezin eamanda arbolai lotu [genion], txerriai lotuta gaiñea sokakin ta. Arbolai lotu [genion]. Astoa eaman harren ondoa ta astoai eantsi geo. Eta astoai eantsita nolabaitt'e abittu zan baiño, ni bakar-bakar-bakarrik handi Altzoa astoa ta txerriyakin. Garai haitan ze ibillera! Gazte-gaztea. Hoik zian hamabost hamasei urteko kontuk. Gue aitta-zanak beti izaten zun, bai, mutilletako zea izaten zun harrek kontu eitten, nei kontu eitten, nei beti kontu eitten ibiltzen zan. Ala urdun ez al zeon arriskuik? Nik esaten det...
-Festara igual ez zizun ateratzen...
-Festaa ez.
-Lanera bakarrik.
-Baiño hoik ibillerak! Pentsatze hutsakin'e ez dakit ze eitten deten nik.

6. Ezkontzeko baimenik bai?

- **Erref**: URN-007/016
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:19:25. **Bukatu**: 00:20:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
21 urte zituela ezkondu zen, 22 urte bete baino egun bat lehenago. Apaizak kontu hartu zion Anitari, 21 urte izateagatik.

Transkripzioa
- Geo ezkontzea aillatu giñan ta ezkontzea ailleatuta gazteik, hogeita, hoita bat urte ta hoita bi urte hurrungo egunian, ezkondutako hurrungo egunian.
- "Ya" hogeita bikin.
- Ta paperak in bihar ziala ba ta paperak itea jun nitzan ta apaiza ordun ez zeon orduko, ttikittakoa ez, beste bat zeon eta jun nitzan ta esan zian: "Zure gurasuak nahi al due mutil horrekin ezkontzea?" Ta: "Bai, nei ez nate behin´e ezer esan". Eta ba "menor de edad". Ordun zan hoita bi urtekin "mayor de edad". Oain hemezortzikin da, ordun hogeita bikin zan. Bai. Eta nei esan ziten ba nahi ez baldin baue gurasuak ez zaittu utziko. Ta nik esaten nun, hurrungo eunian hogeita bi urte. Eta ez niyon ezer esan beai. Ze esan behar niyon? Baiño ni, geldittu nitzan ze mentalidade, hoixe.
- Ya. Harea jun ziñeteneako nahi zenutelako izango zen ba?
- Ba hoi esan zian. Detaille hoi beti gogoan izaten det. Asike hogeita, zure gurasuak ez badue nahi, ez dizue utziko ezkontzen.
- Ya. Baiño gurasoek ez zuen nahi?
- Gurasoek ez ziaten sekula ezer esan. Gurasoak zer esan beharko zuen?

7. Senargaiarekin gelditu ostean, etxerako bidea

- **Erref**: URN-007/017
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:20:46. **Bukatu**: 00:22:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Senarra nola ezagutu zuen azaltzen du. Dantzara Tolosara joaten zen egunetan, itzultzean, aita bidera etortzen zitzaion bila, bakarrik etor ez zedin.

Transkripzioa
- Eta nolaz ezautu zenun, zea Azkaratetik?
- Hemen, neuzken nik anaiak Basitin hemen baserri bat, oaiñ'e jendea bizi da.
- Urnietan?
- Ez. Bai, Urnietan, hemen. Bai, hemendik, gure etxe hontatik horrea. Ta ni horrea etortzen nitzan anaiangana. Eta hau hortik horrea atea zan eta biyok Tolosa juteko zita in genun. Eta hortixe etorri zan.
- Tolosan dantzaldi bat eo izango zan baita ere?
- Bai, baiño Tolosan zortzitan autobusa ta zortzitan eo ta negun Roncalesian, atxalden bostetan eo ez dakit ze izaten zan, bost t'erditan. Hiruetakoan etorri ta bost t'erditakoan etxea.
- Motxa, atxalde motxa baiño bueno.
- Ta, etorri ta gustoa eta aitta atea, ateatzen zitzaidan bide erdia, Azkaratetik Atalloa, bide erdia ateatzen zitzaidan aitta eta ni hantxe oiñez behetik gora ta hue goitik behera etortzen zan biyok elkar jotzen giñun ta etxea.

- Propio etortzen zen zure billa.
- Nere billa.
- Zu bakarrik ez ibiltzeko?
- Ni bakarrik ez ibiltzeagatik. Karo, besteik ez zeon. Beste iñor, kotxeik eta ezer ez zeon.
- Baiño zuk esaten dezuna, lanea bakarrikan juten ziñan?
- Lanea, ni goiz askotan. Bai. Eta urdun, aitta etortzen zan eta biok etxea. Bizimodua hoi zan eta batzuk libertade gehio izaten zuen, baiño nik gutxi nun, nik gutxi nun.
- Gaztenatakoa baita're?
- Gaztena eta.
- Gaztena.
- Neskatan gaztena, mutille bazeon gaztegoa.

8. Aita estraperloan aritzeagatik kartzelara eraman zutenekoa

- **Erref**: URN-007/019
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:23:10. **Bukatu**: 00:25:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Ezkondu baino lehen, josten ikasten aritu zen. Garai hartan, estraperloa zen. Eta, behin, Guardia Zibilak gizaseme bat eskuak lotuta zituela eraman zuen. Horrela jakin zuen garai batean bere aita ere hala eraman zutela Guardia Zibilek; izan ere, zaku-irinekin estraperloan harrapatu zuten. Azkenean, baserriko nagusia joan zen kartzelara, eta hark atera zuen aita kartzelatik. Goserik ez zuen pasa Anitak; baina bere senide zaharragoek, bai.

Transkripzioa
- Zea estraperloa izaten zan eta beste batean ezkontzeko neola, hemen Hernania etorri ta hiru hillaete pasa nittun hemen nik Joxe Mariñean eta josten ikasten, bai ezkondu baiño leheno. Hiru hillabete hor pasa nittun ta josten ikasten neola ta ordun ni nola ez bainun Guardia Zibillik ta holakoik han ez giñun politikaik ezautu eta honea etorri ta hemen Karkaban, zea Guardia Zibillak zian. Ta Guardia Zibillak ikusi nittun nik eta mutil bat eaman zuen eskuk lotuta. Gizaseme bat eta ni harrittuta, ez nun sekula ikusi, aittu ta ezer ez. Holako gauzik, ez telebistaik eta ezer ez zan. Ta etxea juten nitzan jaietan eo juten nitzan etxea bastante ta etxea jun nitzan ta hola esan niyon. Ordun, sekretuak gorde itten zian e. Umiei ez zitzaizkien esaten oain bezala. Eta esan niyen etxea junda: "Nik Guardia Zibillak ikusi dittut eskuk lotuta gizaseme batei eamaten" hola ta. "Hire aitta holaxe eman ziñenan" amak esan zian. Ta nik ez nekin.
- Hoi sekretua e?
- Bai, ta nik esan nun: "Baiño hoi zeatik?" ta zer da ta zer da, klaro galdezka. Hemezortzi urte eukiko nittun, hemezortzi-hemeretzi urte. Bai, hemeretzi're bai, orduako ya mutillakin neon eta hemeretzi urte ta galdezka ta aber zeatik eta nola-ta. Estraperloan harrapatu zuela, zaku-iriñekin Gipuzkoatik Naparrora zaku-iriñikin harrapatu, hamahiru umen aitta zaku-iriñekin jutea ze delitua. Eta zaku-iriñekin harrapatu due eta

kartzela! Eta ordun, maizterrak giñen, han. Eta maizterrak giñelako etxeko andrea zan nausiya eta etxeko andrea jun omen zan kartzela. Bai. Ta hola ta hola, ume txikik, zenbat ume txiki zeon ta harrek ez dakit patu zun eo ez zun. Harrek atea omen zun aitta, guria. Bai.
- Hamahiru seme-alaban aitta?
- Bai zaku-iriñekin harrapatuta. Ta holako kasuk asko, holako kasuak asko. Bai, holako kasuk. Beti zean ta hoi nik goseik ez nun ikusi e. Urdaiazpikoa ta baratxuri-xopa ta beti izaten zan. Gosaltzeko-ta. Nik goseik ez nun pasa. Gue zaharrenak bai, gue zaharrenak; haik neskame-ta ahal zuen tokin. Ni beti etxean.

9. Konortea galdu eta uretara erori

- **Erref**: URN-007/022
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:29:10. **Bukatu**: 00:30:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Behin, arropa garbitzera joan zen batean, emakume batek konortea galdu eta uretara erori zen. Berehala atera zen arren, busti-bustia zegoen, eta arropa lehorra eman zion, etxera itzul zedin.

Transkripzioa
- Eta mutillekin estadun neonean'e erropa garbitzea erreka juten giñen. Hue iraillian jaio zan eta udara hartan guztin, errekan aberiakin hartu erropak eta hemendik erreka jun Alimaiko zubia eta han erropa garbitzen.
- Alimaiko zubia esan dezu?
- Bai.
- Nun da hori?
- Hoi hemendik Hernania abittu eta mugatik pasa ta seittun. Hantxe, zubi hartantxe pasatzen zian. Erreka goitik behera, nola dator? Goizuetatik datorren erreka hoi? Hoixe! Erreka hortako zubi hoi. Hor pasatzen da. Ba hor pasatzen zian erreka hoi, Alimaiko zubiye. Eta zubi azpin...
- Eta astua, astuan?
- Aberiakin, behorrakin. Bai. Ta han hartu erropak eta harea juten giñen bi auzoak eta batean, horko Maixux Bentan etxeko andria gaur daona, pues harri mareo bat eman zitzaion. Ta ni neon tripa haundiyakin eta mareoak eman zion eta ureta erori zan. Ta ureta erori zan bezelaxe espabilatu zan ta seittun altxa zan, baiño dena busti-bustiya. Eta nik ez dakit zenbat erropa, aukera haundik ez nun izango, baiño nauken holako mantala bat eta mantala hua harrei eman niyon jazteko eta ni gaiñekoakin nola etorri nitzan hoi beti gogoan izaten det.
- Eskerrak espabilatu zela ura gaiñen.
- Bai. [...] ze koadroa.
- Ze in behar zenun e?
- Bai. Ze koadroa izango zan. Ta holaxe, holako gauz asko.

10. Artilearen erabilerak

- **Erref**: URN-007/026
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:34:00. **Bukatu**: 00:35:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Artilea garbitzen aritzen ziren. Ezkongaiei koltxoiak oparitzen zitzaizkienez, artilea behar izaten zuten koltxoiak betetzeko. Artilea zuri-zuri egon arte garbitzen zuten. Artilearekin haria egiten zuen anaiak, haiekin galtzerdiak egiteko, besteak beste. Asko josi izan du Anitak.

Transkripzioa
- Ta geo beste gauz bat illea garbitzen. Illea, ardin illea, ardik nola izaten baizian ta neska asko nola baizian, neskak ezkontzen zian bakoitzian, koltxoiak ematen zitzaizkien ta etxean itten zian koltxoiak. Ta ordun, ardin illea, etxeko ardin illea garbitu eta haikin koltxoiak itten zian.
- Nola garbitzen zen?
- Hola, lixiba jarrita. Konporta izaten zan, konporta izenekoa.
- Zer zen konporta?
- Konporta holako zea haundi bat, parriño haundi bat, holako haundi bat eta han sartzen zian ta gaiñean hautsakin ta ura botaz botaz botaz halaxe garbitzen zian illeak. Txuri-txuri-txuri-txuri-txuri iten zian. Bai. Nik hemen proba in izandu det, labadora sartu zakun, baiño ezta pentsatu're. Dena koapillatuta gelditzen da. Han berriz txuri-txuri-txuri ta denak lasai-lasaie illea ateatzen zan oso ondo. Ta hemen nik ez det illeik hala garbitzen. Geo galtzerdik itten han aitzen giñen.
- Hariya zuek itten zenuen?
- Anai zenak. Bai. Anaia hogeita hamahiru urtekin hil zitzagun mendin eta harrek itten zun hariye, urte guztiko galtzerdik itteko hariye ta ardi kontuk juten nitzanian galtzerdik itten, galtzerdik itten. Ta geo etxe batea jun nitzan puntu iten ikastea're bai eta han jerseak itten ikasten ta hoi denak itten ba han ikasi. Galtzerdik'e bai, galtzerdie in nun nik Jesus! Ta oain'e bai, oain'e. Oain kendu dittue galtzerdi hoik.
- Hoixe esan behar nizun! Leheno gizonak.
- Bai. Txalekoa, txalekoa jantzi honai're bai. Esku zea bai, eskulana holakoa asko. Puntua, puntua ikaragarri gustatzen zitzaten gaiñea.

11. Gutunak idazten ikasteko eskaera

- **Erref**: URN-007/029
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:39:13. **Bukatu**: 00:40:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:
Amak eskatu zion Anitaren maistrari, gutuna idazten erakusteko. Horrela, kanpoan zeuden seme-alabekin komunikatu ahal izango zuen. Gutun haiek erdaraz izaten ziren.

Transkripzioa
- Bai ta karta eskribitzeko're bai. Maistrai esan ziyon, ez dakit erderaz nola moldatuko zan, baiño bintzat esan ziyon senide, umi asko kanpuan, neskame, morroi ta neskame-ta, nei eakusteko karta eskribitzen. Ta maestrak eakutsi zian nei karta eskribitzen. Oain ahaztuta dakat nola zeatzen zun, baiño aurrenetik ez dakit nola esaten zun, oain ahaztu zaizkit baiño.
- Euskeraz eo erderaz?
- Erderaz. Karo, harrek nola euskeraz ez zekin.
- Maestra erdalduna-ta.
- Erderaz dena.
- "Querido hermano" ta hasten ziñen?
- Bai. "Querido", bai, bai. "Querido" holako zeakin. Dena hola, karta eskribitzen eakusteko. Ta nei karta eskribitzen eakutsi ta harrek ze esan nei esan zer jarri behar nun ta nik jarri ta.
- Ta kartak erderaz idazten?
- Erderaz, klaro. Euskeraz eskribitzen ez nekin nik ta nik ikasten letzen'e Gipuzkoa etorri ta geo ikasi det gehiena euskeraz letzen, eskribitzen ta letzen ta umiakin asko're. Ikastola umiak bialdu ta ikastolako umiakin. Bai. Haikin ikasi, nola letzen. Letzen ta eskribitzen.

12. Ogia egiteko prozesua

- **Erref**: URN-007/031
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 00:41:35. **Bukatu**: 00:44:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:
Garia nola lantzen zuten azaltzen du. Bildu, errotara eraman, eta irinarekin ogia egin. Ogiaren masa zapaltzeko, umeek hankak garbitu, eta masaren gainean ibiltzen ziren. Amak erakusten zien nola zapaldu orpoarekin. Ogia egiteko prozesua azaltzen du.

Transkripzioa
- Ba garie iten zan bildu. Geo umedoa baldin bazeon, etxea sartzen zan, baiño geo hurruna eguzkiye bero-bero-beroa behar da garie jotzeko. Ta kanpoa ateatzen zian garik, lotu itten giñun, fardo txikik, lasto lastola esaten zion, lastola, lastaia eo zea lastoa, eta euzkitan berotu ta hua jo harriyai jo ta gariya ateatzen zan. Eta gari hua geo makinan pasatzen zan, makina bat hola bueltak emanda zeatzeko bazan. Garbittu han ta gari hoi kutxetan gordetzen zan. Kutxetan gorde eta geo errota eaman. Ta errotan iriña itten zan. Geo etorri ta baillakin, baillakin zahia kendu eta geo gelditzen zan harkin ogiya in. Ta orrantza esaten zan ordun, "levadura" erderaz baiño guk orrantza esaten geniyon.
- Orrantza?
- Bai. Eta harrekin ogiya in eta nik itten nun, itten nun ama ez zeonian nik itten nun. Bestela, berriz, ba zeak amak indarra jun nunbait azkeneako ta guri hankak garbittuazi eta guri hankakin zea, ogiya itten, masa itten hankakin.
- Zer behar du indar haundiya ore horrek?

- Bai, eskukin indarra behar da eta harrek ordun ez zun, indarra juna izango zun eo ez dakit zeatik eta gu zea, umiak ta umiak hankak garbittuazi aurrena han palankanian ta palankanatik hara gora zea, orromahaie esaten zitzaion ordun. Orromahaia ogiya itteko zea, orromahaia eta hara iyo eta hankakin zea erpuakin eakusten ziun beak nola in behar zan, erpuakin itteko, erpuakin, erpuakin ta harrek buelta ematen ziyon ta guk erpuakin, erpuakin ta hue itten zunian, gu jeitsi eta zea maindire garbi batekin hue biltzen zan ta hala uzten zan. Ta negue baldin bazan, azpin beroa jartzen ziyon, brasa eo, bai, ogiya harrotzeko. Eta hue hala eoten zan. Ta geo labia sututzen zan. Labian eoten zian lehengo ogiya ateatzen zanian, labea bero-beroa eoten zan ta harea sartzen zian egurrak, pago-egurra bero-beroa eoten zan ta geo haikin sua errex itten zan eta sue piztu, labea bero-beroa in eta geo hue beotzen zanian, atea hautsak eta denak eta ogi formatu eta labea sartu eta erretzen zanen, atea berriz. Ta ordun atea berrin, ordun ogiya asko jaten zan berrin. Geo handik zortzi eunea gutxiyo, goortu itten zan ta.
- Zortzi egun haiña aguantatzen zun?
- Bai, zazpi-zortzi eun, hortxe ibiltzen zan. Ogi in aldi batek. Ta ogiya nik earki itten nun, ogiya, bai, bai.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-25

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com